

**EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA**

**OINARRIZKO JARDUPIDEAK**

1. Justiziarri lotuaz, bai nazioarte mailan eta bai maila nazionalean bakeak jasaten dituen erasoak hainbat direla egiaztatu dugu: armamenduak, baseek, tokiko gerrek, munduko herrialde askotan giza eskubideen haustea, are eta militarismo ugariagoa, gosea ...

Gure testuinguruan, aipatutako mailatan bakearen alde lanean ari diren plataformak badirela uste dugu: (kontzientzia objektua, zerga objektua, nazioartean eta nazioan arma uztea, bake eta hirugarren mundua, eta abar...)

Bakearen alde, Koordinakundeak berak bete beharreko eginkizuna hau izando da: lehenetsuz, gure herri honek politika arrazoiak direla eta jasaten duen biolentzia erabat ezabatzea. Honek zera dakar, Euskal Herriko gizarteak kontzientzi haz dezan lan horri sendo ekitea. Bakea lortzeko bidea, Euskal Herriarekin zerikusia duten hainbat arrazoi politikoengatik sortutako biolentziatzeko adierazpideei erantzuneko bidea izango da, hain zuzen. Koordinakundearen oinarrizko eginkizunetako bat giza- seme guztion funtsezko eskubidea bizitzarena dela defendatzea izango da. Nahiz eta Koordinakundeak horretan jardun, gure herrian beste biolentziatzeko agerpe ugari (lan, gizarte, kultur... mailan) somatzen direla aitortzen du berorrek.

2. Ezinbestekoa iruditzen zaigu Euskal Herrian bizi dugun biolentzia politikoaren arazo aurrean hiritarrek erantzutea. Horrek zera dakar, orain dela gutxi arte Euskal Herriko gizartearen ezaugarri izan den apatia, beldurra eta isiltasunaren dinamika etetzea eta oraindik nahiko eskasa den mobilizazio hori gehitu eta indartzea. Honek era berean, biolentziaren arazoa ezin dela soilik erakundeen edo alderdi politikoaren esku utzi kontzientziatze beharra dakarkigu..

3. Erantzun hori bideratzeko, garrantzizkoa dela uste dugu hiritarrek osatutako erakunde edo plataforma bat egotea, honako ezaugarriok izango dituen:

**BATASUNZALEA** Zeren eta plataforma honetatik, Oinarrizko Jardupideetan esplizitoki azaltzen diren aurrekontuetatik abiatuta, Euskal Herrian bakearen alde lan egiten duten talde eta pertsona guztiak barneratu nahi bait ditu, alderdikeriak kanpoan utzita, hau da sigla politikorik gabe.

**ANIZTASUNZALEA**eren eta proiektu politiko edo ideologiko desberdinak dituzten pertsona guztiei leku egiten bait die, horiek orain eta betirako biolentzia gaitzestea dutelarik funtsezko eta premiazko oinarriztat, gatazkak erabakitzeke modu edo ekintza politikoaren metodo gisa.

**INDEPENDIENTEA** Zeren eta gure erakundea guztiaren gainetik plataforma hiritarra eta gizartekoa bait da, bai ideologi eta bai diru aldetik edozein alderdi politiko, edo erlijio erakunde, talde edo elkartetik independientea, nahiz eta horiekin harremanak izateko prest egon. Harreman horietan, gure nortasuna eta independentzia argi eta garbi babestu beharko da.

4. Badakigu, azken fienean, gure herrian biolentzia ezabatzea lortzeko, ezaugarri politiko, ekonomiko, sozial, etiko, kultural eta ideologikoak dituzten neurriak hartu behar direla .

Izan ere, langabezia, krisialdi ekonomikoa eta marginazioa jasaten duen gizarte batean errakidikalismoa eta biolentzia erraz suzpertzen dira. Era berean, gure gizarte etikari heldu beharrean sentitzen da, intolerantzia, dogmatismoa, axolagabekeria eta politikari dagokionean somatzen den ilusio ezaren aurrean, elkarren arteko harremanak bultzatzea, bizi dugun aniztasuna onartzea eta mobilizazioa bait dira landu beharrekoak.

Ezinezkoa da egiazko bakea lortzea giza justizia eraginkorrik ez badago, baina egia da ere biolentziak berak ekonomi, gizarte eta politika esparrua hondamendira eramaten laguntzen duela. Horregatik, Euskal Herrian edozein helburu politiko lortzeko, funtsezkoa da biolentziaz baliatzeari uko egitea.

Jakinik bakearen bidetik jotzeko egin beharreko lana orokorra dela, gure ustez premiazkoa da ere guztietako biolentzia politikoa ezabatzea (hiltzea, bahitzea, atentatuak, azpijokoa, tortura, etaba), hori bait de beharrezko baldintza, nahikoa ez izan arren lortu nahieko bakearen bidetik joateko. Lan hori ekingo dio lehentasunez Koordinakundeak.

Dena den, biolentzia politikoa ezabatzeak ez digu ekarriko benetazko bakea Euskal Herrira, ez bait dugu egiazko bakerik izango adiskidetzen ez bagara.

Hainbat eta hainbat urteko biolentzia politikoak kalte larriak sortu izan ditu eta sortzen ditu. Kalte horiek gehinetan konponezinak direlarik, eta gainera Euskal Herrian gorrotoa eta mendekua sorterazi dituztelarik gure herrian bertan eta Euskal Herritik kanpo ere.

Horregatik, Koordinakunderan lehentasunezko egitekoa izango da ere modu berezian biolentzia politikoa zuzenean jasan duten pertsonen gorroto eta mendeku sentimenduak gainditu ditzaten saiatzea.

5. Horretarako, burutuko ditugun jardupide eta ekintzak honako hauek izango dira.

- Bakearen aldeko noizbehinko manifestapenak egitea; era guztietako manifestaldi publikoak (ibilaldiak, giza-kateak, kontzentrazioak, jaialdiak...) premiazko eta garrantzizko egoerei erantzuteko asmoz edo Koordinakundeak berak dituen beharretarako burutuko direnak, hain zuzen. Bakea lortzeko lanean baliagarriak iruditzen zaizkigun beste zenbaitek (erakindeak, ...) antolatutako ekintza eta manifestapen guztien alde jarriko gara.

Aipatzen dugun biolentziaz baliatzeagatik Euskal Herriarekin zerikusia duen edozein gertakizunek eragindako heriotza bategatik, gertatu eta hurrengo egunean "Gestoak " edo kontzentrazio isilak egitea. Koordinakundearen taldeak eraturakoak dira. Ekintza honen bidez, guztiaren gainera giza-bizitzaren galera salatzen da. Horregatik, heriotza horien eragilea, gertaeraren zirkunstantziak edo biktimaren kondizioa edozein izanda era burutzen dira. Auzo, herri, eskola, unibertsitateetan ahalik eta kontzentrazio gehiago egitea da asmoa... hiritarrek arazoaren aurrean kontzientziatu eta parte har dezaten. Kontzentrazio horien iraunaldia 15 minutukoa izango da gutxienez.

- Komunikatuak prentsara, irratiara eta telebistara bidaliz gure planteamenduak zabaltzea; gesto, kontzentrazio isil, ekintzen, eta koordinakundearen pausoen, ideien eta martxaren berri emateko, zortzikoak lantzea herria jakinaren gainean egon dadin.

- Talde, antolakinde eta erakindeen bitartez (ikastetxeak, sindikatuak, alderdiak, elizak...) gure planteamenduak zabaltzea.

- Gure sakoneko ideikin bat datozen talde guztiei koordinakunde bateratu bat eratzeko proposamena egitea, Euskal Herri osorako eta biolentzia politikoa ezabatzearen aldeko lanean funtsezko erreferentzi puntu izando dena. Koordinakunde horrek talde guztiak onartuko lituzke, beren autonomia eta espezifikotasuna errespetatuz. Koordinakunde horren izena ondoren eztabaidatuko da.

- Biolentzia politikoaren eragina zuzenean jasan duten pertsonak eta giza taldeak laguntzeko ekintzak burutzea.

- Elkarren arteko herremana eta erreflexioa bultzatuko duten Bakearen aldeko heziketarako ekintzak burutzea (eskolako haur, jende gazte eta helduei zuzendutakoak hain zuzen).

- Bestelako ekintzak burutzea; bakearen aldeko jardunaldiak, debate iraunkorrerako taldeak osatzea....

6. Koordinakundearen iharduera eremua Euskal Herriarekin zerikusia duen biolentzia politikoaren arazoari lotuko zaio, biolentzia hori nahiz eta Euskal Herriko lurraldetik kanpo sortu.

7. Koordinakundeak dituen egitekoen artean ez da sartzen Euskal Herrian bizi dugun biolentzia politikoari irtenbide emateko formula zehatzak eta teknikoak proposatzea. Gure ekarpena zera da, soluziobide horiek ondorengo erizpideok kontuan har dezatela laguntzea da:

a) politikan, ekonomian eta gizartean... dialogoari lehentasuna ematea;

b) oinarrizko giza-eskubideei begirune izatea, bereziki bizitzeko eskubideari;

c) Euskal Herriko gehiengoaren borondateari begirune izatea, horretarako dauden proiektu politiko ezberdinak legezkoak direla eta bide demokratiko eta bakezaleekin defendatu beharrekoak direla uste izanik;

d) erakunde politikoei begirune ezatea, Euskal Herriko gehiengoaren ordezkari bait dira

e) Koordinakundeek indarraren eta agintaritzaren gehiegikeriak eta biolentziaren aurkako borrokan erakunde horietatik sor daitekeen giza-eskubideen hausteak salatuko ditu;

f) Koordinakundeak Giza-Eskubideen Adierazpeen Unibertsala beregain hartzen du.

8. Talde bakoitzak autonomiaz jokatzeko kolektibo honen Oinarrizko Ihardunpideei kalte egingo ez dien edozein iharduera burutzeko. Koordinakundearen kide gisa, taldeak ahal duten neurrian bertatik sortuko diren ekarpenen alde jokatuko dute. Koordinakundearekin duten lotura gehiengo osatzen dugunok onartutako ekintza, irizpide eta printzipioen arabera izango da.